

Energia berriztagarrien erabilera eta aurrezpen zein eraginkortasun energetikoa toki mailan

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

1. Oinarri hauen xedea da diru laguntzak ematea, elkarrekiko norgehiagokaren bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei, mankomunitateei eta merkataritza udal eta eskualde sozietateei, azterketak, planak eta proiektuak egin ditzaten, helburu dutelarik energia berriztagarrien erabilera eta energia aurrezpena eta eraginkortasuna sustatzea. Zehazki, diruz lagungarri izango dira:

A. Energiari buruzko Planak eta azterketak

A.1. Orokorrak eta sektore anitzekoak Energiaren arloan udal eta eskualde ekintzak antolatzeko eta definitzeko sektore anitzeko planak. Pobrezia eta zaugarritasunenergetikoa gutxitzeko (zuzentzeko eta prebenitzeko) azterlan eta planak. Bizitegi-auzoetan, industrialdeetan, landa guneeetan eta abarretan, energia eraginkortasuna hobetzeko azterketak eta planak. Energia berriztagarri elikatutako distrituko bero sareak edo argindar sare banatuak jartzeko bideragarritasun azterketak. Energia berriztagarriaren bidezko energia eta bero ekoizpenaren potentzialari eta dauden baliabideei buruzko azterketa.

A.2. Sektore Publikoa Energia-jarduketan planak. Sektore publikoan, eraikin publikoen, ibilgailuen eta instalazioen energia-eraginkortasuna hobetzeko auditoriak, azterlanak eta planak. Eraikin publikoetan energia berriztagarrien instalazioak jartzeko bideragarritasun azterketak. Eraikin eta instalazioen kontsumoak kontrolatzeko sistemak.

A.3 Hirigintza-plagintza, mugikortasuna eta garraio publikoa.

Hirigintza-plagintzaren jasagarritasun energetikoari buruzko azterketak. Mugikortasun eta garraio publikoko planak

B. Proiektuak eta inbertsioak egitea energia berriztagarriko instalazio berrietan edo lehendik daudenak handitzea.

Temperatura baxuko eguzki-instalazio termikoak. Eguzki-Instalazio fotoboltaikoak, bai sare elektrikitik isolatutakoak bai sare elektrikora konektatutakoak. Instalazio eolikoak, bai sare elektrikitik isolatutakoak bai sare elektrikora konektatutakoak. Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazioak. Halaber, biomasa erabiltzen duten egungo district heating-cooling-ren instalazioetan lotura edo konexio berriak diruz lagunduko dira. Geotermia ustiatzeko instalazioak. Halaber, energia geotermikoa erabiltzen duten egungo district heating-cooling-ren instalazioetan lotura edo konexio berriak diruz lagunduko dira. -Energía Aurrezteko Eraikuntza Kode Teknikoaren (aurrerantzean EKT) Oinarrizko Dokumentuaren HE 4. atalean zehaztutako parametroak betetzen dituzten bero-ponpak, energia berriztagarria hornitzen dutela pentsa baitaiteke.

Nork tramitatzen du

- INGURUMENEN ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DPTUA.
- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia
- Ingurumen Zerbitzua

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Agiri eta eredueta sarrera](#)

Internet bidezko eskaera

[Sakatu izapidetzara joateko](#)

INFORMAZIO OSAGARRIA

Informazio gehigarria

[Informazio zehatza](#)